



## Egin zaizkie testak adinekoen eta desgaituen Arabako 20 egoitzatako erabiltzaileei

Arabako adinekoen egoitzen 2 erabiltzaile hil dira, eta COVID-19aren positibo ziren

Jaitsi egin da kutsadura kopurua nahiz eta proba gehiago egin diren, eta koronabirusetik sendatutako pertsona gehiago dago

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 15a.** Azken orduetan, koronabirusa detektatzeko PCR testa egin zaie Arabako 20 egoitzatako erabiltzaile guztiei. Arabako ESia progresiboki egiten ari da proba horiek Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza guztietan.

Testa adinekoen eta desgaituen Arabako 10 foru egoitzaren erabiltze guztiei egin zaie (Zadorra, Ariznabarra, Txagorritxu, Sallurtegi, Samaniego, Lakua, Etxebidea, Goizalde, Ajuria eta Pablo Neruda); hau da, foru plazen % 87 inguru da hori. Proba, gainera, beste 9 egoitza pribatutako erabiltzaile guztiei eta lurraldeko udalerrri bateko etxebizitza komunitario batekoei egin zaie.

Era berean, Osakidetza joan den astean diagnostikorako probak egiten hasi zen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko egoitzetako langileei.

### **Egoitzen egoera**

Apirilaren 13ko datuen azken eguneratzean, Arabako adienekoen egoitzen 2 erabiltzaile hil dira, eta COVID-19aren positibo ziren. Heriotza horien arrazoia da osasun aldetik txarrera egin dutela zenbait egoiliarrek azken asteetan. Gainera, gero eta gutxiago dira kutsatuak nahiz eta proba gehiago egin diren, eta koronabirusetik sendatutako 43 egoiliar gehiago dago.

Koronabirusak sortutako osasun krisia hasi zenetik, guztira 118 pertsona hil direla kontabilizatu da.

Gainera, gero eta pertsona kutsatu gutxiago dago (375); izan ere, COVID-19ak kutsatutako 8 pertsona gutxiago dira aurreko egunarekin alderatuz. Azken orduetan ez da egon positibo bat ere.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

Egoitzek pertsona horietatik 25 ospitaleetara bideratu dituzte, osasun egoera larrian egoteagatik, eta koronabirusa daukaten pertsona gehienak (340) artatzen ari dira. Positibo eman duten kasuetatik, 224 Araban dauden zentro pribatuetako erabiltzaileak dira, 143 foru egoitzetan bizi dira, eta gainerako 8 pertsonak lurraldeko udal ekipamenduetan.

Zentro horiek 3.900 plaza inguru dituzte 96 ekipamendutan banatuta, egoitzen, etxebizitza komunitarioen eta apartamentu tutelatuen artean. Lau egoitzatik hiruk ez dute COVID-19 kasurik erregistratu.

Desgaitasuna duten pertsonen egoitzen eremuan, guztira 36 kasu positibo daude zentro horietan, eta COVID-19 duten 4 pertsona daude ospitaleratuta. Zentro horietako bi pertsona sendatuta daude koronabirusa gainditu ondoren.